


# EUROTAN



3 ikastunitatea

## Aurkibidea

<b>1. Irakaslearentzako oharrak</b>	<b>2.or</b>
<b>2. Bezeroarekin hizketan</b>	
Zenbat da?	3-4.or
<b>3. Dendetako gauzak</b>	
Erakusleihoa aldatzen	5-6.or
<b>4. Finkatuz</b>	
A. Zenbakiak	7.or
B. Ditxosozko bueltak	8.or
<b>5. Dendariaren txokoa</b>	
Txekeak	9.or
<b>6. Eranskinak</b>	
6.1. Transkripzioak	10-11.or
6.2. Zenbakiak	12.or

## 1. Irakaslearentzako oharrak

Dendariaren eta bezeroaren arteko elkarrizketetan, produktuen prezioaz arituko dira ikasleak, dirua eta zenbakiak hizpide direla, nagusiki.

- **Bezeroarekin hizketan.** Atal honetako elkarrizketetan, esaterako, bezeroek prezioak jakin nahi dituzte; beraz, nola galdetzen den nahiz dendarien erantzunak landuko dira. Ikasleek antzeko egoera baten elkarrizketa sortuko dute, eta bere kasa elkarrizketak berrantolatzen saiatuko dira, entzundako esaldiak logikoki zerrendatuz.
- **Dendetako gauzak.** Jantzi dendetako hiztegia ikusiko dute eta, irudiekin lanketa egin ondoren, erakusleihoko manikiak jantziko dituzte, gainontzeko ikaskideei egindakoa azalduz.
- **Finkatuz.** Zenbakiak euskaraz nola osatzen diren ikusi ez ezik, praktikatu ere egingo dute, falta direnak osatuz. Bestalde, kontuak nola azaltzen diren entzunda, bezeroei zenbat bueltatu behar zaien adierazi beharko dute.
- **Dendariaren txokoa.** Txeke baten zatiak aztertutakoan, eredu hutsak betetzen ahaleginduko dira.

## 2. Bezeroarekin hizketan

ZENBAT DA?

100'

### Helburuak:

- Entzundako elkarrizketan bezeroen asmoak identifikatzea.
- Prezioak galdetzeko eta adierazteko egiturak ezagutzea.
- Produktuen prezioak identifikatzea.
- Entzundako prezioak eta zenbakiak lotzea.
- Irakurritako esaldiak ordenatuz, elkarrizketak berrantolatzea.
- Irudikatutako egoerako elkarrizketa osatzea.

### Zertan den:

- Ikasleek hainbat denda-motatan gertatzen diren elkarrizketak entzungo dituzte, bezeroak jakin nahi dituen prezioez jabetzeko. Horrez gain, honako betebeharrak ere eskatuko zaizkie: bezeroen asmoak identifikatu, prezioak galdetzeko moduak eta erantzunak lotu, prezio bakoitzari zenbakia egokitu, produktuen prezioak ongi aukeratu... Ondoren, irudiz azaldutako antzeko egoera baten elkarrizketa sortzen saiatuko dira. Azkenik, etxean, elkarrizketak berrantolatzeko aukera izango dute, entzundako esaldiak logikoki zerrendatuz.

## PROZEDURA

### Atazaurrea

- Leku desberdinetan gertatzen diren hiru elkarrizketa (**CDaren 6. pista**) entzungo dituzte ikasleek. Elkarrizketa bakoitza liburuko irudietako batekin lotuko dute. **(10')**

#### Zuzenketa-orria

ELKARRIZKETA	IRUDIA
1	soinekoa
2	txorizoa
3	garbigailua

### Ataza

- Ikasleek bezero bakoitzaren asmoa zein den ulertu behar dute. Elkarrizketak berriro entzunda, liburuko aukeretatik egokiena aukeratu dute bezero bakoitzarentzat. **(15')**
- Ikasleak orain arte belarriz aritu dira zenbakiak lantzen. Liburuan, ordea, idatzita daude, biak lotzen saia daitezten. **(5')**
- Elkarrizketak berriro entzuten dituzten bitartean, produktu bakoitza zein zenbakiri dagokion azpimarratu behar dute. **(10')**

### Feedbacka

- Taldeka jarrita zuzenduko dute egindako lana. **(15')**

#### Zuzenketa-orria

ELKARRIZKETA	BEZEROAREN ASMOA
2	Produktua erosi nahi du
3	Produktuaren prezioak konparatu nahi ditu
1	Produktuaren prezioa bakarrik jakin nahi du

PREZIOA	ZENBAKIA
ehun eta bost	105
sei	6
bederatzi	9
hamalau	14
ehun eta berrogeita hamar	150
bi eta hamar	2.10
seiehun eta berrogeita hamar	650
bostehun eta berrogeita zortzi	548
mila eta hamar	1.010
mila eta berrehun	1.200

ZER	ZENBAKIA
soineko urdinaren prezioa	105
solomo-txorizoaren prezioa	6
Salamancako txorizoaren prezioa	9
txorizo iberikoaren prezioa	14
txorizo-gramoak	150
harategiko kontua	2.10
garbigailua	650
garbigailu merkea	548
garbigailu garestia	1.010
garbigailu-lehorgailua	1.200

### Atazaostea

- Taldeka, entzundako elkarrizketen antzeko bat osatzen eta antzezten saiatuko dira. **(20')**

### ETXEAN

- Ikasgelan entzundako elkarrizketen transkripzioak nahasian dituzte ikasleek liburuan. Bistan da euren lana ordenatzea izango dela. **(25')**

### 3. Dendetako gauzak

#### ERAKUSLEIHOA ALDATZEN

50'

##### Helburuak:

- Jantzi-dendetako produktuen izenak ezagutzea.
- Jantziak hainbat ezaugarriren arabera sailkatzea.

##### Zertan den:

- Ikasleek erakusleihoko manikiak jantziko dituzte, irudietako arropa piloa erabiliz: alegia, jantzi horiek guztiak sailkatu eta gero, manikiei zer jantziko dieten erabakiko dute.

#### PROZEDURA

##### Ataza

- Ikasleak jantzi-denda bateko erakusleihoa aldatu behar duela-eta, iritsi zaion genero guztia antolatu beharko du. Irudietako arropak taulako irizpideen arabera sailkatzen saiatuko da, zutabe bakoitzean izenak idatziz. **(20')**
- Erakusleihoko bost manikiak jantziko ditu, bere gustuaren arabera. **(10')**

##### Feedbacka

- Produktuen sailkapenak alderatu ondoren, maniki bakoitzaren azalpena egingo diote elkarri, binaka jarrita. **(10')**

Zuzenketa-orria					
Lentzeria	G. G.	G. B.	GIZ	EMA	HAUR
Bata	X		X	X	X
Pijama	X	X	X	X	X
Bularretakoa	X			X	
Kuleroak		X		X	X
Galtzak		X	X	X	X
Galtzerdiak		X		X	
Barruko elastikoa	X		X	X	X
Galtzontziloak		X	X		X
Kamisoia	X			X	
Tanga		X			
Bainujantzia	X	X	X	X	X
Bikinia	X	X		X	X
Albornoza (bainu-txabusina)	X		X	X	X
Emakumeak	G. G.	G. B.	GIZ	EMA	HAUR
Jertsea	X		X	X	X
Txamarra	X		X	X	X
Blusa	X			X	X
Gona		X		X	X
Nikia	X		X	X	X
Praka bakeroak		X	X	X	X
Soinekoa	X			X	
Larruzko jaka	X		X	X	X
Minigona		X		X	
Txandala	X	X	X	X	X
Haurrak	G. G.	G. B.	GIZ	EMA	HAUR
Txanoa	X		X	X	X
Petoa	X	X	X	X	X
Adurretakoa (baberoa)	X				X
Haur-oinetakoak		X			X
Gizonak	G. G.	G. B.	GIZ	EMA	HAUR
Alkandora	X		X	X	X
Lan-jantzia (buzoa)	X	X	X	X	
Trajea	X	X	X	X	

Jaka (amerikana)	X		X	X	
Txalekoa	X		X	X	X
Txandala	X	X	X	X	X
<b>Oinetakoak</b>	<b>G. G.</b>	<b>G. B.</b>	<b>GIZ</b>	<b>EMA</b>	<b>HAUR</b>
Zapatilak		X	X	X	X
Zapatak		X	X	X	X
Takoidun zapatak		X		X	
Sandaliak		X	X	X	X
Txinalak (txankletak)		X	X	X	
Espartinak (abarketak)		X	X	X	X
Abarkak		X	X	X	X
Kirol-zapatilak		X	X	X	X
Katiuskak		X	X	X	X
Mendiko botak		X	X	X	X
<b>Osagarriak</b>	<b>G. G.</b>	<b>G. B.</b>	<b>GIZ</b>	<b>EMA</b>	<b>HAUR</b>
Zapia	X		X	X	X
Poltsa			X	X	X
Bufanda	X		X	X	X
Gerrikoa		X	X	X	X
Gorbata	X		X		X
Euritakoa			X	X	X
Makila		X	X	X	X
Eskularruak	X		X	X	X
Txapela	X		X	X	X
Kapela	X		X	X	X

## 4. Finkatuz

Ikasleei ikastunitatean zehar landu diren hainbat egituratan arreta jarraraztea da atal honen helburua. Ezinbestekoa da, beraz, ikasleek jakitea hemen proposatzen diren jarduerak euren kaxa egiteko modukoak direla eta, era berean, ariketak egiteko erreferentzia ikasgelan egindako lanean bilatu behar dutela. Dena den, irakaslearen laguntza derrigorrezkoa izango da, sortu dakizkiekeen zalantzei erantzun egokia emateko.

### A. ZENBAKIAK

45'

#### Helburuak:

- Zenbakiak nola osatzen diren ezagutzea.
- Azalpenei jarraituz zenbakiak osatzea.

#### Zertan den:

- Ikasleek zenbakiak euskaraz nola osatzen diren ikusiko dute, oso era mailakatuan. Sail bakoitzean hasierako zenbakiak irakurri ondoren, beste guztiak osatzen saiatuko dira. Azkenik, liburuko zenbakiak idatzi beharko dituzte laguntza gutxiagorekin.

### PROZEDURA

#### Ataza

- Zenbakiak nola osatzen diren azalduko zaie ikasleei (ikus eranskinetan Euskaltzaindiaren arauak). Hogeinakako sistemaz ohartzeko, 100eraino hogeinaka dituzte azalduta. Hasierako zenbakiak osatuta badituzte ere, ikasleek jarraipena emango diote sail guztia bukatzeko. **(15')**
- Ehunekoan eta milakoen osaeraren inguruko azalpenak ikusita, falta diren zenbakiak osatzen saiatuko da ikaslea. **(15')**
- Bukatzeko, taulako zenbakiak idatzi beharko ditu laguntza txiki batekin. **(15')**

### Helburuak:

- Irudietako euro txanpon eta billeteen balioa adieraztea.
- Entzundakoan oinarrituta, diru kopuru egokiak aukeratzea.
- Dendan ordaintzean eman beharreko bueltak adieraztea.

### Zertan den:

- Irudietako txanpon eta billeteen balioaz aritu ondoren, denda batean kontuak nola adierazten diren entzungo dute, baita bezeroek emandako diru kopuruaren arabera zer bueltatu behar zaien esan beharko ere.

## PROZEDURA

### Ataza

- Ikasleak irudietako euro txanpon eta billeteen balioak adieraziko ditu, irudi bakoitzaren azpian dagokion kopurua idatziz. **(10')**
- Entzungo dituen hiru egoeretan (**CDaren 7. pista**) dendako kutxazaina bezeroei aitzaki kontua kobratzen. Entzun ahala, tiket bakoitza zenbatgarrena den markatu behar du. **(10')**
- Bezero bakoitzari zer diru-kopuru bueltatu behar zaion idatziko du ikasleak taulan, txanpon eta billete kopuruak zehatz-mehatz idatziz. **(10')**

## 5. Dendariaren txokoa

Dendara egokitzeko eredu baliagarriak aurkituko ditu ikasleak atal honetan. Jarduera horiek nork bere kaxa egitekoak badira ere, egokitzapenak egitean topatuko ditu ikasleak eragozpen gehien. Ikasleari eredu egokiak aukeratzen laguntzea izango da irakaslearen lana.

### TXEKEAK

**30'**

#### Helburuak:

- Txekeen ezaugarriak ezagutzea.
- Hilabeteen izenak identifikatzea.
- Data osatzeko ordena ezagutzea.
- Gaztelaniazko informazioa erabiliz, hainbat txeke osatzea.

#### Zertan den:

- Ikasleek, irudian duten txekearen zatiak azaldu ondoren, hilabeteen izenak idatziko dituzte, hutsuneak betez. Ondoren, gaztelaniazko informazioa erabiliz, liburuko txekeak beteko dituzte.

### PROZEDURA

#### Ataza

- Txekearen irudia erabiliz, hainbat atal izango dituzte aztergai (data, norentzakoa, kopurua...) **(10')**
- Hilabeteen hurrenkera osatzeko eskatuko zaie ikasleei, hilabete izenak zuzen kokatuz. **(5')**
- Taulako gaztelaniazko datuekin hiru txeke betetzen saiatuko dira. **(15')**

## 6. Eranskinak

### 6.1. Transkripzioak



CDaren 6. pista

Iraupena: 00:02:06

#### 1. ELKARRIZKETA

DENDARIA	Egun on!
BEZEROA	Kaixo!
DENDARIA	Zer nahi duzu?
BEZEROA	Gauzatxo bat bakarrik. Zein prezio dauka erakusleihoko soinekoak?
DENDARIA	Zein diozu? Txuri hori?
BEZEROA	Ez, bestea, ondokoa, urdina.
DENDARIA	105 euro.
BEZEROA	Eskerrik asko. Agur.
DENDARIA	Bai, agur.

#### 2. ELKARRIZKETA

BEZEROA	Egun on!
DENDARIA	Egun on! Zer nahi duzu?
BEZEROA	Txorizo pixka bat jarriko al didazu?
DENDARIA	Bai, noski. Nondik jarriko dizut? Solomo-txorizoa 6 eurotan daukazu kilo, Salamancakoa 9 eurotan eta Iberikoa 14 eurotan. Denak oso onak dira.
BEZEROA	Etxekoa badaukazu?
DENDARIA	Ez, ez zait gelditzen.
BEZEROA	Iberikoa jarri, orduan.
DENDARIA	Zenbat jarriko dizut?
BEZEROA	150 gramo.
DENDARIA	Besterik?
BEZEROA	Ez. Zenbat da?
DENDARIA	2 euro eta 10 zentimo.
BEZEROA	Tori, juxtu dago.
DENDARIA	Eskerrik asko.
BEZEROA	Gero arte.
DENDARIA	Agur, bai.

#### 3. ELKARRIZKETA

BEZEROA	Arratsalde on!
DENDARIA	Arratsalde on! Zer nahi duzu?
BEZEROA	Garbigailu bat erosi nahi dut.
DENDARIA	Oso ondo. Hemen dituzu batzuk; edo, bestela, katalogoan begiratu beharko dugu.
BEZEROA	Hauetako ondo daude. Zein prezio dute?
DENDARIA	Honek 650 euro balio ditu. Beste hau merkeagoa da, 548 euro. Eta hori garestiagoa da, 1.010 euro.
BEZEROA	Eta ba al daukazu lehorgailuarekin?
DENDARIA	Bai, baina gehixeago igoko da, 1.200 euro inguru.
BEZEROA	Eskerrik asko, gehiago begiratuko dut.
DENDARIA	Oso ondo, badakizu hemen zer dagoen.
BEZEROA	Bai, bai, agur.
DENDARIA	Agur.



## CDaren 7. pista

Iraupena: 00:02:02

### 1. EGOERA

KUTXAZAINA	Kaixo, egun on!
BEZEROA	Egun on!
	Bip!... Bip!... Bip!... (produktuak pasatzen)
KUTXAZAINA	76 euro eta 25 zentimo, mesedez.
BEZEROA	Barkatu, zenbat esan duzu?
KUTXAZAINA	76 eta 25.
BEZEROA	Tori.
KUTXAZAINA	Hementxe dituzu bueltak eta tiketa.
BEZEROA	Oso ondo, eskerrik asko.
KUTXAZAINA	Ez horregatik, agur.
BEZEROA	Bai, agur.

### 2. EGOERA

KUTXAZAINA	Kaixo, egun on!
BEZEROA	Egun on!
	Bip!... Bip!... Bip!... (produktuak pasatzen)
KUTXAZAINA	135 euro eta 44 zentimo, mesedez.
BEZEROA	Barkatu, zenbat esan duzu?
KUTXAZAINA	135 eta 44.
BEZEROA	Tori.
KUTXAZAINA	Hementxe dituzu bueltak eta tiketa.
BEZEROA	Oso ondo, eskerrik asko.
KUTXAZAINA	Ez horregatik, agur.
BEZEROA	Bai, agur.

### 3. EGOERA

KUTXAZAINA	Kaixo, egun on!
BEZEROA	Egun on!
	Bip!... Bip!... Bip!... (produktuak pasatzen)
KUTXAZAINA	98 euro, mesedez.
BEZEROA	Barkatu, zenbat esan duzu?
KUTXAZAINA	98 euro.
BEZEROA	Tori.
KUTXAZAINA	Hementxe dituzu bueltak eta tiketa.
BEZEROA	Oso ondo, eskerrik asko.
KUTXAZAINA	Ez horregatik, agur.
BEZEROA	Bai, agur.

### 4. EGOERA

KUTXAZAINA	Kaixo, egun on!
BEZEROA	Egun on!
	Bip!... Bip!... Bip!... (produktuak pasatzen)
KUTXAZAINA	23 euro eta 89 zentimo, mesedez.
BEZEROA	Barkatu, zenbat esan duzu?
KUTXAZAINA	23 eta 89.
BEZEROA	Tori.
KUTXAZAINA	Hementxe dituzu bueltak eta tiketa.
BEZEROA	Oso ondo, eskerrik asko.
KUTXAZAINA	Ez horregatik, agur.
BEZEROA	Bai, agur.

## 6.2. Zenbakiak

### ZENBAKIEN IDAZKERAZ

Zenbakiak letraz idazteko orduan eredu desberdinak aurkitzen dira, ez bakarrik euskararen kasuan, baizik beste hizkuntza anitzetan ere. Euskaltzaindiaren ustez, puntu honetaz gomendioren bat proposatzeko orduan bi gauza hartu behar dira kontuan: batetik, idazleen usadioa eta ohitura literatura tradizioan, bai mendebalean bai ekialdean; bestetik, azken urteotan, euskara bera ikastetxe, komunikabide, banketxe eta abarretan baliabide bezala sartu denetik, esparru berri horietan egin den aukera ere. Eta hona zergatik: Euskaltzaindiak, jakina denez, beti idazle klasikoaren usadioari ematen dio lehentasuna. Alabaina, zenbakiak idazkerak, bide bat nahiz bestea aukeratu, ez dirudi euskaraz halako aparteko garrantzirik duen. Ez, behintzat, hitz hau edo bestea hautatzeak izan lezakeenaren adina. Horregatik izan du gogoko azken urteotako usadioa ere. Hezkuntzan, batez ere, erabaki honen premia sentitzen denez, egoki da proposamena egitea.

Zenbakiak kontua dela eta, zenbait zehaztapen egitea komeni da:

1) *Zero* eta *huts*, biak erabiltzen dira, nahiz ez diren gauza bera: *bost eta huts, huts eta huts, zero bider zero berdin zero*, e.a.

2) *Hiru* eta *lau* zenbakiak bi sistema erakusten dituzte deklinatzeko orduan.

3) *Bost* zenbakiaren aldaera *bortz* da, Iparraldeko zenbait hizkeratan erabilia. Hala ere, Nafarroa-Beherean parterik handienez eta Zuberoan *bost* esaten da.

4) *Hogei* zenbakiaren eta *ehun* zenbakiaren artean dauden zenbakiak idazkeraren tradizioa aski nahasia ageri da, ekialdea eta hegoaldea nor bere bidetik ibili baitira. Ekialdean *hogei eta zazpi* idatzi izan da XVIII. mendearen erdialderaino; gero, *hogei ta zazpi, hogei-ta zazpi, hogeita zazpi* eta *hogeitazazpi* bezalakoak aurki daitezke. Kontura gaituzten, dena dela, *hogeitazazpi* bezalakoak ageri diren arren ez dela *hogeitamar* bezalakorik idazten, halakoetan beti bereiz jartzen baita: *hogeita hamar*. Mendebalean *hogei eta zazpi* ereduak ere aurkitzen dira. XIX. mendearen erdialderaino *hogei ta zazpi* zen nagusi eta hori da erabiliena 1950-1970. urteen artean ere. Tartean *hogeita zazpi* bezalakoak ere ikusten dira. Azken urteotan *hogeitazazpi* da gehien zabaldu dena (cf. *Maiztasun hiztegia, EGLU, HABE*, e.a.).

5) *Hogei* eta *berrogei* zenbakiak anizkoitzetan Hegoaldean beti *ogei* erabili izan da; ekialdean *hogei*, baina *hogoi* XVII. mendean geroztik, salbu Zuberoan, non *hogei* erabiltzen baita egun ere.

6) 60 eta 80 adierazteko *hirurogei* eta *laurogei* ageri dira forma nagusi bezala. Ekialdean ere *hirurogei* bezalakoak erabili izan dira historian, baina XVIII. mendetik *hiruretan hogei* (*hiruetan hogei*, berriagoa) eta *lauretan hogei* (*lauetan hogei*). Kontuan izan, jakina, *hogoi* horrek ere sortzen dituen aldaerak.

7) *Mila* zenbakitik gorakoaren artean ere ohiturak ez dira berdinak, *eta* juntagailua sartu ala ez: *mila ø bortz ehun eta berrogei eta hamabortza zuan; milla ø bost eun ogei ta bi toneladako; milla ø bost eun laurogei ta emeretzigarren urtean; milla eta ehun gizon; milla eta bederatzireun da ogei ta bostgarren urtian; milla ø sei ehun eta berrogei eta bigarrenean; milla ø sei eun ogei ta amabigarren urtean; milla ta zazpieun; milla ta zortzi eun*, e.a.

Beraz, datu hauek guztiak kontuan izanik, hona hemen Euskaltzaindiaren erabakia zenbakiak idazkeraz:

Oharrak:

- *Hemezortzi* jartzen den leku bakoitzean *hamazortzi* ere jarri behar da, bigarren aukera gisan.
- *Ehun eta bat* zenbakian ez da beharrezkoa *eta* hori oso-osorik ahoskatzea eta mintzairaren arabera *eta, ta* edo *da* bezala ahoska daiteke.
- *Mila* zenbakitik gora *eta* kenduko da ondoren datozen ehunekoetan ere agertzen bada: *mila eta berrehun*, baina *mila berrehun eta bi; mila eta laurehun*, baina *mila laurehun eta bi*.
- 2 zenbakia adierazteko *bi* jarri den arren, puntu honetaz aurrerago mintzatuko da Euskaltzaindia, aukera bat baino gehiago baitago euskalkien artean (*biga, bida*, e.a.). Bestetik, noiz erabil daitezkeen forma hauek ere zehaztu beharra dago.